**AYUNTAMIENTO DE ZUIA**
*MURGIA (ALAVA)*

**ZUIAKO UDALA**
*MURGIA (ARABA)*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Murgian, bi mila eta hamaseiko martxoaren hamarrean, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.-

**ALKATEA**
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA JN. (EH Bildu)
**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
GORKA IRIONDO GANTXEGI JN. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)
MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA JN. (EAJ-PNV)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)
SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU)
JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)
**BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA**
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

**1.- AURREKO OHIKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

En Murgia a diez de marzo de dos mil dieciséis, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.-

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DON GORKA IRIONDO GANTXEGI (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)
DON MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA (EAJ-PNV)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)
DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU)
DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)
**CONCEJAL QUE NO ASISTE**
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA ANTERIOR.**

Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366
✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con

Aurreko bilkuraren akta ikusirik, Alonso zinegotzi jaunak esan du 4.- Erabilera publikoko 734. mendiko aprobetxamenduen esleipena izeneko puntuan badagoela aipatu ez den zerbait, hau da, idazkia irakurtzen amaitu eta bozkatu baino lehen, Otsoa Eribeko zinegotzi jaunak esku hartu eta zera esan zuela "*egiteko dagoen gai bat da eta konpontzen saiatzeko eseri beharko dira*".

Vista el acta de la Sesión anterior, por parte del Concejal Sr. Alonso se pone de manifiesto la omisión existente en el punto 4.- Adjudicación de aprovechamientos en el M U.P. 734, cuando una vez finalizada la lectura de su escrito y antes de la votación, intervino el Concejal Sr. Otsoa Eribeko y dijo que *es un tema que está pendiente y hay que sentarse para intentar solucionarlo.*

Udalbatzak akta zuzenketa horrekin onartzea erabaki du.

La Corporación acuerda aprobar el acta con esa corrección.

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.**

**2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Alkatetzak 2016ko otsailaren 8ko 22. zk.ko dekretutik otsailaren 29ko 54.era arte eman dituen xedapenen berri eman eta ondoko gai hauei buruzkoak dira: 2016ko TMIZn hobariak ematea 25 urtetik gorako antzinatasuneko ibilgailuen titularrak diren subjektu pasiboei eta familia ugariaren titularrak diren subjektu pasiboei. OAMIPeko ordutegi luzatuko zerbitzuaren eta Musika Eskolaren urtarrileko tasen erroldak onartzea (1.296,62 € eta 2.129,25 €, hurrenez hurren). Taxi-lizentziaren titularrari erretiroagatik besterentzeko baimena. Kirol-instalazioak mantendu, kudeatu eta bertara sartzeko, kirol-jardueren ikastaroak emateko eta udalerrian enplegua sustatzeko Aitekomanagement SLri esleitutako zerbitzuaren kontratua formalizazioa etenda uzten duen ebazpena, BPXport Eki SL enpresak jakinarazi baitu esleipen horren aurkako errekurtso berezia jartzeko asmoa duela. La Blanca Atletismo Klubari baimena ematea 16.04.10ean Zuiako XII. Herri Lasterketa ospatzeko. Markina inguruan abandonatutako txakurren inguruko deklarazioa. Murgiako 7. poligonoko 139. lursailean ezkutuko lanak egin direla deklaratzea eta titularrei errekerimendua hormigoizko zolata gainean egindako metalezko egitura kentzeko Arau Subsidiarioek ez dutelako erabilera hori

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el Decreto Nº 22 del 08.02.16 al 54 del 29.02.16 referentes a la concesión de bonificaciones en el IVTM/2016 a sujetos pasivos titulares de vehículos con antigüedad superior a 25 años de los vehículos y a sujetos pasivos titulares de familia numerosa, aprobación de los padrones de las tasas del servicio de horario ampliado en el CPVO y de la Escuela de Música del mes de enero por importes de 1.296,62€ y 2.129,25€ respectivamente, autorización a titular de licencia de taxi para la transmisión de la misma por jubilación, resolución por la que se deja en suspenso la formalización del contrato del servicio de mantenimiento, gestión y control de accesos de las instalaciones deportivas, impartición de cursos deportivos y fomento del empleo en el municipio adjudicada a Aitekomanagement S.L. a la vista de la comunicación remitida por BPXport Eki S.L. de su intención de interponer recurso especial frente a dicha adjudicación, concesión de autorización al Club Atletismo La Blanca para celebrar la XII Carrera Popular de Zuia el 10.04.16, declaración de perros abandonados en la zona de Markina, declaración de obras clandestinas en la parcela 139 polígono 7 de Murgia y requerimiento a los titulares para que retiren la estructura metálica realizada sobre la

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

baimentzen. Obra-baimenak ematea: Bitorianon bainugela berritzeko; Giliernako 138/1 lursailean dagoen biltegiaren estalkia berritu eta fatxada ixteko. Murgian kokatutako eraikinean estalkia berritzeko lanen amaierako ziurtapena onartzea. Lan, zerbitzu, zuzkidura, diru-laguntza eta udal-langileen otsaileko soldatei dagozkien 2. eta 3. zk.ko ordainketa-aginduak (86.750,95 euro eta 26.433,28 euro, hurrenez hurren) onartzea. Bitorianoko 2. poligonoko 185. Lursailak osatzen duen exekuzio-unitatearen Hirigintzako Jarduketa Programa, Birpartzelatze Proiektua eta Hiritartze Proiektua hasiera batez onartzea**.** Santiago Sáenz de Lafuente jauna otsailaren 22tik 26ra behin-behineko idazkari izendatzea, titularra oporretan dagoelako. OAMIPeko ordutegi luzatuko zerbitzuaren 2015eko abenduko eta 2016ko urtarrileko tasaren errolda zuzentzea, akatsa egin delako. Udal-bulegoetarako altzarien zuzkidura publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatzeko espedientea eta baldintzen pleguak onartzea.

Udalbatzak horren guztiaren berri izan duela adierazi du.

**3.- POSTA OFIZIALA.**

**3.1.- Arabako Foru Aldundia:**

- Gizarte Ongizatekoek: hilaren amaieran landa-inguruko gizarte-baliabideen maparen lehen zirriborroa bidaliko dutela jakinarazi dute; Arabako gizarte-zerbitzuen mapa egiteko Erakunde arteko Mahaiaren 1/2016 aktaren zirriborroa bidali dute; lehen etxebizitzaren gabetzeren bat egotekotan harremanetarako egongo den pertsonaren berri eman dute; eta 2015aren kargura lanetarako emandako diru-laguntza ordaintzeko egiaztagiriak onartzen ez direla

solera de hormigón porque dicho uso no lo permiten las NNSS, concesión de licencias de obras para reforma de baño en Bitoriano, para rehabilitación de cubierta y cierre de fachada de almacén situado en la parcela 138/1 de Guillerna/Gilierna, aprobación de la certificación final de las obras de rehabilitación de cubierta en edificio situado en Murgia, aprobación de las relaciones de mandamientos de pagos Nº 2 y 3/2016 referentes a obras, servicios, suministros, concesión de subvenciones y retribuciones del personal del Ayuntamiento del mes de febrero por importes de 86.750,95 euros y 26.433,28 euros respectivamente, aprobación inicial de del Programa de Actuación Urbanizadora, Proyecto de Reparcelación y Proyecto de Urbanización de la UE constituida por la parcela 185 polígono 2 de Bitoriano, nombramiento del funcionario D. Santiago Sáenz de Lafuente como Secretario accidental del 22 al 26 de febrero por vacaciones de la titular, rectificación del padrón de la tasa del Servicio de horario ampliado del CPVO meses de diciembre/15 y enero/16 por error, aprobación del expediente de contratación mediante procedimiento negociado sin publicidad del suministro de mobiliario para las oficinas municipales y aprobación de los pliegos de condiciones.

La Corporación se da por enterada.

**3.- CORESPONDENCIA OFICIAL.**

**3.1.- Diputación Foral de Álava:**

- Bienestar Social comunica que a finales de mes remitirán el primer borrador del mapa de recursos sociales del medio rural, remiten borrador del acta 1/2016 de la Mesa Interinstitucional para la elaboración del mapa de servicios sociales de Álava, comunican la persona de contacto para el caso de algún desahucio de 1ª vivienda y que no se admite la documentación justificativa para el abono de la subvención

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

helarazi dute.

- Toki Administrazio eta Lurralde Oreka Sailak: udalerriko banda zabalaren estaldurari buruzko informazioa eskatu du; Santiago Saenz de Lafuente funtzionarioa behin-behineko udal-diruzain izendatu duela jakinarazi; eta Zerbitzu eta zuzkidurak kontratatzeko zentralaren berri eman du, Udalak horri atxikitzea nahi izango balu.

- Ingurumen eta Hirigintza Sailak jakinarazi du Arau Subsidiarioen 4. aldaketa puntuala ez dagoela ingurumenaren ebaluazio-prozeduraren menpe eta 5.a prozedura sinplifikatuarenera.

- Mendi Zerbitzuak Berretin inguruko mendian bota eta Gestión Forestal Frías SL enpresari esleitutako zuhaitz guztien berri eman du, Udalari 4.875 € gehi BEZ dagozkiolarik.

- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, 2015ko ekitaldiko EJZren probintzia eta Estatu mailako kuoten banaketa jakinarazi du.

**3.2.- Eusko Jaurlaritza:**

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak: Oroko Santutegiko kanpaiaren birgaldaketarako diru-laguntza ukatu izanaren berri eman du; Euskararen Aholku Batzordeak onartutako hiztegi terminologikoak bidali ditu; eta bibliografia-funtsetarako eta euskararen erabilera sustatzeko diru-laguntzak eman dituela jakinarazi du: 1.307 € eta 1.209,50 €, hurrenez hurren.

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak honako hauek jakinarazi ditu: Bitorianoko pilotalekuko estalkiaren lanetarako diru-laguntza aldatu eta gutxitu diotela eta 2015/16ko energia-proiekturako 140.213,97 euroko zenbatekoa eman zaiola.

- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdiaren berri eman du.

- Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak jakinarazi du

concedida con cargo al 2015 para obras

- Administración Local y Equilibrio Territorial solicita información sobre la cobertura de banda ancha en el municipio, comunica el nombramiento accidental del funcionario D. Santiago Sáenz de Lafuente como Tesorero del Ayuntamiento e informa de la Central de Contratación de servicios y suministros por si fuera de interés para el Ayuntamiento su adhesión a la misma.

- Medio Ambiente y Urbanismo informan que la 4ª modificación puntual de las NNSS no está sometida al procedimiento de evaluación ambiental y la 5ª al procedimiento simplificado.

- Servicio de Montes informa sobre el arbolado derribado en el monte en la zona de Berretín que ha sido adjudicado a Gestión Forestal Frías S.L. correspondiéndole al Ayuntamiento el importe de 4.875€ más IVA

- Hacienda, Finanzas y Presupuestos comunica el reparto de las cuotas estatales y provinciales del IAE del ejercicio 2015.

**3.2.- Gobierno Vasco:**

- Educación, Política Lingüística y Cultura comunica la denegación de subvención para la refundición de la campana del Santuario de Oro, remiten diccionarios terminológicos aprobados por el Consejo Asesor del euskera, comunican la concesión de subvenciones para fondos bibliográficos: 1.307€ y promoción del uso del euskera: 1.209,50€.

- Desarrollo Económico y Competitividad comunica la modificación y minoración de la subvención para las obras de cubierta del frontón de Bitoriano y la concesión de una subvención por importe de 140.213,97 euros para proyecto energético 2015/16.

- Instituto Vasco de Administración Pública comunica la convocatoria de acreditación de perfiles lingüísticos.

- Órgano administrativo de recursos contractuales comunica la interposición de

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

BPXport Eki SL enpresak errekurtso berezia aurkeztu duela kirol-instalazioak kudeatu eta enplegua sustatzeko zerbitzuen esleipenaren aurka eta espedientea bidaltzea eskatu du.

- Enplegu eta Gizarte Politika Sailak honakoa jakinarazi du: “remite" aplikazioa abian jarri dela eraikinen EIT kudeatu eta erregistratzeko, eta Murgiako oinezkoen pasabideetan espaloiak jaisteko 4.881,61 €ko diru-laguntza eman duela.

- Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak: apirilaren 27tik 29ra Euskalduna jauregian hiri eta herri iraunkorrei buruz izango den 8. europar batzarrerako gonbidapena egin du; eta Eskola Agenda 21 programarako 675 €ko diru-laguntza eman duela jakinarazi du.

- Justizia eta Herri Administrazio Sailak, Idazkaritza-kontuhartzailetzako lanpostuak betetzeko lan-poltsa sortu izanaren berri eman du.

**3.3.- EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartea:**

- 2016ko urteko kuota gutxi barru kobratuko duela eta horren zenbatekoa 300,51 €koa dela jakinarazi du.

- Europa jauregian 2016.04.15ean izango den ohiko Batzar Nagusirako deia egin du.

- Udalak informazioaren teknologien azpiegiturei dagokionez duen egoerari buruzko informazio eskatu du.

- Martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunerako europar udalerrien deklarazio instituzionala bidali du.

- Txantxangorria hizkuntza-kanpainaren berri eman du.

**4.- EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUKO DEKLARAZIO INSTITUZIONALA.**

Elorza zinegotzi andreak esan du EH-Bildu taldeak Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta aurkeztutako

recurso especial por BPXport Eki S.L. contra la adjudicación de los servicios de instalaciones deportivas y fomento del empleo y solicita la remisión del expediente.

- Empleo y Políticas Sociales comunican la puesta en marcha de la aplicación “remite” para gestionar y registrar la ITEs (de los edificios) y la concesión de subvenciones para rebaje de aceras en pasos de peatones en Murgia por importe de 4.881,61€,

- Ordenación del Territorio y Medio Ambiente invita a la 8ª conferencia europea de ciudades y pueblos sostenibles que tendrá lugar del 27 al 29 de abril en el Euskalduna y comunica la concesión de una subvención de 675€ para el programa Agenda Escolar 21.

- Justicia y Administración Pública informa sobre la creación de una bolsa de trabajo para el desempeño de puestos de Secretaria-Intervención.

**3.3.- Asociación de Municipios Vascos-EUDEL**:

- Comunica el próximo cobro de la cuota anual de 2016 por importe de 300,51€

- Convoca Asamblea General ordinaria para el próximo 15.04.16 en el Palacio Europa.

- Solicitan información sobre situación del Ayuntamiento en relación a las infraestructuras de las tecnologías de la información.

- Remiten declaración institucional de los municipios europeos para el día Internacional de la Mujer el 8 de marzo.

- Informan de la campaña lingüística txantxangorria.

**4.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL DÍA INTERNACIONAL DE LA MUJER.**

La Concejal Sra. Elorza comenta la declaración que presenta el Grupo EH-Bildu referente al Día Internacional de la Mujer donde se insiste en el compromiso que

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

deklarazioan Zuiako Udalak arlo horretan hartu nahi duen konpromisoa azpimarratzen dela, hainbat neurri harturik; gaineratu du gutxi barru Berdintasun Batzordea deituko dela eta, gainera, Aldundiaren berdintasun-arloko diru-laguntzen deialdiaren berri eman du.

Alkateak esan du EAJ/PNV taldeak beste deklarazio bat aurkeztu duela goizean bertan, EUDELena, eta azaldu du horren gai nagusia emakumearen eskubideak sustatzea dela, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze-aldera, eta EH-Bildu taldearenak garrantzi handiagoa ematen diola Udalaren konpromisoari; bere aburuz osagarriak dira.

Lopez zinegotzi andreak esan du hobe dela horrelako gaiak ospakizun egunaren aurreko Osoko Bilkuran jorratzea, ondorengoan baino, eta ondo iruditzen zaiola Berdintasun Batzordea deitzea.

Alonso zinegotzi jaunak azaldu du koordinatuta lan egin beharko litzatekeela eta hau guztia denboraz prestatu.

Bertaratutako guztiak Emakumearen Nazioarteko Egunari buruzko deklarazioarekin ados azaldu dira.

Udalbatzak adierazpen bakarra onartzea erabaki du, aho batez, onartutako testua ondorengoa izanda:

Zuiako udala helburu hauen inguruan elkartu da:

1.- Hizkera ez-sexista erabiltzea, baita aurrerantzean sortzen diren agiri guztietan ere.
2.- Diru-laguntzetan generoaren inguruko klausulak ezartzea.
3.- Herriko bertako kolektiboekin elkarlanean, herriko gune beltzen mapa garatzea, eta, beharrezkoa ikustekotan,

pretende adquirir el Ayuntamiento de Zuia en ese ámbito con la adopción de una serie de medidas; añade que está previsto convocar próximamente la Comisión de Igualdad e informa de la convocatoria de subvenciones en materia de igualdad por Diputación.

El Alcalde dice que esta mañana el Grupo EAJ/PNV ha presentado otra declaración, la de la EUDEL y comenta que ambas tienen como tema fundamental promover los derechos de la mujer en aras de lograr la igualdad entre mujeres y hombres y parece que la del Grupo EH-Bildu se concreta más en el compromiso del Ayuntamiento; piensa que son complementarias.

La Concejal Sra. López dice que es mejor tratar estas cuestiones en el Pleno anterior a la fecha de su celebración que con posterioridad y le parece bien la convocatoria de la Comisión de Igualdad.

El Concejal Sr. Alonso expone que habría que trabajar en coordinación y preparar esto con tiempo.

Resultando todos de acuerdo con la declaración del Día Internacional de la Mujer.

La Corporación por unanimidad acuerda aprobación una declaración única conforme al siguiente texto:

El Ayuntamiento de Zuia se compromete a:

1.- Utilizar un lenguaje no sexista e incluso en todos los documentos que vaya creando.
2.- Establecer cláusulas de género en las subvenciones.
3.- Aplicar un protocolo contra la violencia machista, así como a desarrollar si se ve necesario el mapa de los puntos negros

indarkeria matxistaren aurkako protokoloa ezartzea.

4.- Herriko bertako kolektiboekin elkarlanean, parte-hartze paritarioa garatu eta sustatzea.

5.- Udalaren eskumeneko arloetan genero-ikuspegiarekin zeharka lan egitea.

6.- Emakumeek eta talde feministek deitutako mobilizazioetan esku hartzeko deia egitea.

7.- Gutxi barru Berdintasun Batzordea deitzea, Adierazpen instituzional honetan jasotako ekintzen, zein emakumearekin zerikusia duten beste ekimen eta ekintza batzuen jarraipena egin eta beroriek sustatzeko helburuarekin.

8.- Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan -tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa-, emakumeek eta gizonek parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan.

9.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizarteen oinarrizko elementua dela bermatu dezatela eskatzea estatuetako gobernuei eta Europako instituzioei; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da.

10.- Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez.

11.- Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkretuak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuei ematen zaizkien

de la localidad, en colaboración con los colectivos de la propia localidad.

4.- Desarrollar y promover la participación paritaria, en colaboración con los colectivos de la propia localidad.

5.- Trabajar transversalmente con perspectiva de género en las áreas de competencia municipal.

6.- Hacer un llamamiento a participar en las movilizaciones convocadas por mujeres y grupos feministas.

7.- Convocar la Comisión de Igualdad, en fechas próximas, con el fin de hacer seguimiento e impulsar acciones incluidas en esta Declaración institucional, así como otras iniciativas y acciones relacionadas con la mujer.

8.- Recordar que la democracia no se puede construir sin las mujeres, con lo que es ineludible la adopción de todas las medidas necesarias a todos los niveles (local, regional, estatal y europeo) para conseguir una participación igualitaria de mujeres y hombres en los procesos de toma de decisiones.

9.- Hacer un llamamiento a los estados y a las instituciones europeas para que ratifiquen la igualdad de mujeres y hombres como elemento central de nuestros valores y de las sociedades europeas; por este motivo debe ocupar un puesto central en la agenda política y ser integrada en todas las políticas y legislaciones relevantes.

10.- Llamar a las ciudades y regiones de Europa a adquirir un compromiso formal en favor de la igualdad firmando la Carta Europea para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local, auspiciada por el CCRE-CEMR en 2006, que ha sido firmada hasta la fecha por más de 1500 ciudades y regiones.

11.- Promover que quienes hayan firmado la Carta tomen medidas concretas para promover la igualdad a nivel regional y local; hagan uso de las herramientas que pone a disposición el CCRE-CEMR a través de su Observatorio en línea con los poderes conferidos a gobiernos locales y regionales

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

botereen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela.

12.- Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, etxeko indarkeria eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak.

13.- Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea estatuetako gobernuei eta EBko instituzioei. Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi dezatela eskatzea gobernu nazionalei.

14.- Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragoztea.

15.- Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dezatela, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeari begira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.

**5.- ARAU SUBSIDIARIOEN (4.A ETA 5.A) ALDAKETA PUNTUALAK.**

**5.1.- Murgiako 2. poligonoko 8B eta 245. lursailei dagokien 4. aldaketa puntuala.**

Alkate-udalburuak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, udal-

en los diferentes países; y proporcionen los recursos financieros y humanos necesarios para su implementación.

12.- Denunciar la violencia que siguen soportando las mujeres en la actualidad, aún en el siglo XXI: se debe combatir toda forma de violencia perpetrada contra las mujeres en la vida pública y privada, incluido el tráfico de mujeres, la explotación sexual, la violencia en el ámbito doméstico y otros actos contra los derechos humanos de las mujeres.

13.- Hacer un llamamiento a los estados e instituciones de la UE para adoptar unas políticas y legislación comunes con respecto a la prevención, protección y apoyo a las mujeres víctimas de la violencia de género; hacer dicho llamamiento a los estados para que ratifiquen el Convenio del Consejo de Europa para prevenir y combatir la violencia contra las mujeres y la violencia doméstica (Convenio de Estambul).

14.- Tener en cuenta las necesidades específicas de mujeres y menores refugiados que huyen de la guerra y la persecución, y que llegan a nuestras ciudades y municipios; proporcionarles la acogida y la atención adecuadas y la prevención de toda clase de violencia y discriminación.

15.- Demostrar su voluntad de cooperación a nivel global para conseguir el Objetivo 5 de la Agenda 2030 de las Naciones Unidas, que tiene como objetivo poner fin a toda forma de discriminación contra las mujeres.

**5.- MODIFICACIONES PUNTUALES DE LAS NORMAS SUBSIDIARIAS (Nº 4 y 5).**

**5.1.- Modificación puntual Nº 4 referente a las parcelas 8B y 245 polígono 2 de Murgia**.

El Sr. Alcalde-Presidente, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa,

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

plangintzako arau subsidiarioen 4. aldaketa puntuala onartzea proposatu du, Raúl Pérez-Dañobeitia arkitektoak 2015eko azaroan egindako dokumentazioari jarraiki. Aldaketa horrek Murgiako UE-3 unitatean barne hartutako 2. poligonoko 8B eta 245. lursailei dagokie, eta bere helburua da horiek sailkapenetik ateratzea eta lurzoru ez-urbanizagarri bihurtzea, Arabako Foru Aldundiko Hirigintza eta Ingurumen Sailaren abuztuaren 4ko 700/2006 Foru Araua betetze aldera.

Idazkariak egindako txostena ikusirik.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- Zuiako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen 4. Aldaketa, Raúl Pérez Dañobeitia arkitektoak 2015eko azaroan idatzitakoa, hasiera batez onartzea.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzeko hilabeteko epea irekitzea, dagozkion iragarkiak Udaletxeko iragarki-taulan, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Arabako Lurralde Historikoan gehien irakurtzen de egunkarietako batean argitaratuz, eragindakoak direla uste duten pertsonek beren interesak babesteko egoki irizten dutena alegatzerik izan dezaten. Horretarako, Udal Idazkaritzan izango dute eskuragarri espediente administratiboa eta dokumentazio teknikoa.

HIRUGARRENA.- Behin betiko onetsi arte eta, dena dela, asko jota 2 urtez, etenda uztea indarrean dagoen hirigintza-erregimeneko aldaketak eragindako eremuan, hain zuzen ere, Murgiako UE-3 unitatean, edonolako hirigintza-baimena

propone la aprobación la 4ª modificación puntual de las NNSS de planeamiento municipal, conforme a la documentación elaborada por el Arquitecto D. Raúl Pérez-Dañobeitia de fecha noviembre de 2015, que afecta a las parcelas 8B y 245 del polígono 2 de Murgia, incluidas en la UE-3 de dicha localidad, que tiene como objeto desclasificar las mismas y pasarlas a suelo no urbanizable, dando cumplimiento a la Orden Foral Nº 700/2006 de 4 de agosto del Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava.

Visto el informe emitido por la Secretaria.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar con carácter inicial la 4ª Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Zuia, redactada por el Arquitecto D. Raúl Pérez Dañobeitia de fecha noviembre de 2015.

SEGUNDO.- Abrir un periodo de información al pública por el plazo de un mes mediante inserción de los correspondientes anuncios en el tablón de edictos del Ayuntamiento, Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y en uno de los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico de Álava, a fin de que las personas que se consideren afectadas puedan alegar lo que estimen oportuno en defensa de sus intereses, estando a su disposición el expediente administrativo y la documentación técnica en la Secretaría municipal.

TERCERO.- Suspender hasta la aprobación definitiva y en todo caso por el plazo máximo de 2 años el otorgamiento de toda clase de licencias urbanísticas en el ámbito afectado por la modificación del régimen urbanístico vigente, concretamente

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

ematea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen edukia udalerriko Administrazio Batzarrei jakinaraztea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90.5. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta aldaketa honek zuzenean eraginpean hartzen dituen pertsonei ere jakinaraztea.

BOSGARRENA.- Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak egin ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

**5.1.- Murgiako 7. poligonoko 28B lursailari dagokion 5. aldaketa puntuala.**

Alkate-udalburuak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, udal-plangintzako arau subsidiarioen 5. aldaketa puntuala onartzea proposatu du, Raúl Pérez-Dañobeitia arkitektoak 2016ko urtarrilean egindako dokumentazioari jarraiki. Aldaketa horrek Murgiako 7. poligonoko 28 lursailean egindako partzelatzetik ondorioztatutako 28B lursailari dagokio, eta bere helburua da duen SUR-2 sailkapena aldatu eta administrazio- eta gizarte-erabilerako ekipamendu komunitarioko toki-sistema bihurtzea. Dokumentazio horri ingurumenaren ebaluazio azterlana gehitu zaio, eta ingurumen-txosten estrategikoa egiteko ingurumen-prozedura izapidetzea eskatu da.

Idazkariak egindako txostena ikusirik.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

la UE-3 de Murgia.

CUARTO.- Notificar el contenido del presente acuerdo a las Juntas Administrativas del municipio, a los efectos de lo dispuesto en el artículo 90.5 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco, así como a las personas que en su caso estén directamente afectadas por la presente modificación.

QUINTO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**5.2.- Modificación puntual Nº 5 referente a la subparcela resultante 28B polígono 7 de Murgia.**

El Sr. Alcalde-Presidente, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, propone la aprobación la 5ª modificación puntual de las NNSS de planeamiento municipal que presenta la Junta Administrativa de Murgia, conforme a la documentación elaborada por el Arquitecto D. Raúl Pérez-Dañobeitia de fecha enero de 2016, que afecta la parcela resultante 28B de la parcelación realizada en la parcela 28 polígono 7 de Murgia, que tiene como modificar la calificación de la misma de SUR-2 a sistema local de equipamiento comunitario, con uso administrativo y social. A dicha documentación se acompaña estudio de evaluación ambiental, y se solicita la tramitación del procedimiento ambiental para la emisión del Informe ambiental estratégico.

Visto el informe emitido por la Secretaria.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

LEHENENGOA.- Zuiako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen 5. Aldaketa, Raúl Pérez Dañobeitia arkitektoak 2016ko urtarrilean idatzitakoa, hasiera batez onartzea eta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren agiria Ingurumen eta Hirigintza Sailari bidaltzea, dagokion prozedura izapidetze aldera.

PRIMERO.- Aprobar con carácter inicial la 5ª Modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal de Zuia, redactada por el Arquitecto D. Raúl Pérez Dañobeitia de fecha enero de 2016 y dar traslado del documento de evaluación ambiental estratégico al Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo para la tramitación del procedimiento correspondiente.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzeko hilabeteko epea irekitzea, dagozkion iragarkiak Udaletxeko iragarki-taulan, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta Arabako Lurralde Historikoan gehien irakurtzen de egunkarietako batean argitaratuz, eragindakoak direla uste duten pertsonek beren interesak babesteko egoki irizten dutena alegatzerik izan dezaten. Horretarako, Udal Idazkaritzan izango dute eskuragarri espediente administratiboa eta dokumentazio teknikoa.

SEGUNDO.- Abrir un periodo de información al pública por el plazo de un mes mediante inserción de los correspondientes anuncios en el tablón de edictos del Ayuntamiento, Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y en uno de los diarios de mayor circulación del Territorio Histórico de Álava, a fin de que las personas que se consideren afectadas puedan alegar lo que estimen oportuno en defensa de sus intereses, estando a su disposición el expediente administrativo y la documentación técnica en la Secretaría municipal.

HIRUGARRENA**.-** Behin betiko onetsi arte eta asko jota 2 urtez, etenda uztea indarrean dagoen hirigintza-erregimeneko aldaketak eragindako eremuan, hain zuzen ere, Murgiako 7. poligonoko 28B lursailean, edonolako hirigintza-baimena ematea.

TERCERO**.-** Suspender hasta la aprobación definitiva y en todo caso por el plazo máximo de 2 años el otorgamiento de toda clase de licencias urbanísticas en el ámbito afectado por la modificación del régimen urbanístico vigente, concretamente la parcela 28B polígono 7 de Murgia.

LAUGARRENA.- Erabaki honen edukia udalerriko Administrazio Batzarrei jakinaraztea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 90.5. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta aldaketa honek zuzenean eraginpean hartzen dituen pertsonei ere jakinaraztea.

CUARTO.- Notificar el contenido del presente acuerdo a las Juntas Administrativas del municipio, a los efectos de lo dispuesto en el artículo 90.5 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo del País Vasco, así como a las personas que en su caso estén directamente afectadas por la presente modificación.

BOSGARRENA.- Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak egin ditzan

QUINTO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

udalaren izenean eta ordezkaritzan.

**4.- 2017KO BASO ESPEDIENTEA.**

Alkate-udalburuak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, 2017rako aurreikusitako baso-aprobetxamenduen planaren berri eman du, urtero errepikatzen direnak barne hartzen dituelarik, hots: sutarako egur-sortak, bazkalekuak, ehiza-barrutiak, luberritzeak, txabola eta erlauntzen okupazioak, golf-zelaia.

Era berean, erabilera publikoko 734. mendiko udal-titulartasuneko zuhaitz-lote batzuk seinaleztatu eta baimentzeko eskatzea proposatu du, 2016ko udal-aurrekontuan jasotako aurreikuspena gauzatze aldera.

Udalbatzak Informazio Batzordearen proposamena aho batez berretsi eta honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2017. urterako Baso Aprobetxamenduen Plana onartzea.

BIGARRENA.- erabilera publikoko 734. mendiko udal-titulartasuneko zuhaitz-loteak, 400.000 euroko balio ingurukoak, seinaleztatzeko eskatzea, 2016 honetan enkantean ateratzeko.

HIRUGARRENA.- Arabako Foru Aldundiari Aprobetxamenduen Planarekin batera erabaki honen kopia bidaltzea.

LAUGARRENA.- Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak egin ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

en ejecución de este acuerdo.

**6.- EXPEDIENTE FORESTAL 2017.**

El Sr. Alcalde-Presiente, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, da cuenta del Plan de Aprovechamientos forestales previsto para 2017 que incluye los que se repiten cada año: suertes foguerales, pastos, Coto de caza, roturas, ocupaciones con chabolas y colmenas, campo de golf.

Igualmente propone solicitar la señalización y autorización de unos lotes de arbolado de titularidad municipal del monte de U.P. 734, para sacarlos a subasta, con el fin de hacer efectiva la previsión contenida en el presupuesto municipal 2016.

La Corporación por unanimidad, ratificando la propuesta de la Comisión informativa ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar el Plan de Aprovechamientos Forestales 2017 .

SEGUNDO.- Solicitar el señalamiento de lotes de arbolado titularidad del Ayuntamiento en el monte de U.P. 734 por un importe aproximado de 400.000 euros para sacar a subasta el presente año 2016.

TERCERO.- Remitir copia de este acuerdo junto con el Plan de Aprovechamientos a la Diputación Foral de Álava para su autorización.

CUARTO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

**7.- MURGIAKO BATZARRAK UDALAREN TITULARTASUNEKO 7. POLIGONOKO 28-B LURSAILA DOAN LAGATZEKO PROZEDURAN ATZERA EGITEA ETA TRUKATZE PROPOSAMENA.**

Alkate-udalburuak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, Murgiako Administrazio Batzarrak jabetza bereganatzeko duen interesa ikusirik eta Murgiako 7. Poligonoko 28-B lursailean gizarte-zentroa eraikitzeko baldintzarik ez dagoela-eta, lursail hori Maisuen Etxea eraikitzeko Udalari dohainik lagatako lursailarekin trukatzea proposatzen du, duen egoera juridikoa erregularizatzeko helburuarekin, izan ere, egoera hori ez zen legeztatu eta Jabetza Erregistroan Murgiako Batzarraren izenean inskribatuta azaltzen da. Gaur bertan jaso da trukatze horrekin ados daudela dioen Batzarraren idazkia.

Idazkariaren txostena ikusirik.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA.- Murgiako 7. poligonoko 28. lursailean egindako partzelatzearen ondoriozko Udalaren B lursaila Murgiako Administrazio Batzarraren jabetzako 1. poligonoko 9. lursailarekin trukatzeko espedienteari hasiera ematea, udalaren finka Jabetza Erregistroan inskribatzeko baldintzapean, gaur egun egin gabe dagoelako.

BIGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak egin ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

**7.- DESESTIMIENTO DE LA JUNTA DE MURGIA DEL PROCEDIMIENTO DE CEDSIÓN GRATUITA D ELA PARCELA 28-B POLÍGONO 7 DE TITULARIDAD MUNICIPAL Y PROPUESTA DE PERMUTA.**

El Sr. Alcalde-Presidente, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa, y visto el interés de la Junta Administrativa de Murgia de adquirir en propiedad y sin condición alguna la parcela 28-B polígono 7 de Murgia para la construcción del centro social, propone permutar la misma con la parcela que fue objeto de cesión gratuita al Ayuntamiento para la construcción del edificio Casa Maestros, para regularizar la situación jurídica existente porque la misma no se formalizó y en el Registro de la propiedad consta inscrita a nombre de la Junta de Murgia. En el día de hoy se ha recibido escrito de la Junta en el que hace constar su acuerdo con la citada permuta.

Visto el informe de la Secretaria.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO.- Incoar expediente de permuta de la parcela resultante B de la parcelación efectuada en la parcela 28 polígono 7 de Murgia titularidad del Ayuntamiento con la parcela 9 polígono 1 propiedad de la Junta Administrativa de Murgia, condicionado a la efectiva inscripción en el Registro de la propiedad de la finca de titularidad municipal pendiente a día de hoy.

SEGUNDO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

**8.- TXOSTENAK.**

Otsoa Eribeko jaunari hitza eman eta honako hauen berri eman du:

- Zuiako langabetuentzat prestakuntza-eskaintza egiteko aukera, kontuan izanda, gainera, Aldundiak jarduera horiek diruz laguntzeko egindako deialdia; gaiaren inguruan mintzatu da: mendekotasuna duten pertsonentzat gizarte- eta osasun-zerbitzuei buruzko 370 orduko ikastaroa ematea kontratatuko litzateke; Aldundiak 100 ordu inguruko modulua ordainduko luke eta udalerriko egoitzetan, eta baita EALZen ere, praktikak egingo lirateke. 10/15 bat pertsonako taldea izango litzateke, hiruzpalau hilabete iraungo luke, egunean sei ordu emanez, eta Udalarentzat 18.000 eurokoa litzateke kostua, AFAren diru-laguntza kendu ostean; kurtsoa emango zuen enpresa udalaren Enplegu Plana egin zuena izango litzateke eta, hobekuntza gisa, elikagaien manipulazioko ikastaro bat eskaintzen du.

Alkate-udalburuak honako hauen berri eman du:

- Atzo, asteazkenez, aurreko bilera batean esan zenez, EJko Hezkuntza Saileko teknikari bat bertaratu zen Aita Pauldarren eraikinaren eremuan beraiek duten planetan lehen hezkuntza eta haurreskolarentzako tokirik dagoen bertatik bertara egiaztatzera.
- URA eta Osakidetzari bilera bat egiteko eskaera egin zaie telefonoz, kolektoreen eta CRHaren gaia jorratzeko, hurrenez hurren.

**9.- GALDERAK ETA ESKAERAK. -**

Alonso zinegotzi jaunak honako hau azaldu du:

- Bere aburuz, ur beltzen sareak gaizki funtzionatzen du hainbat herritan: puntu batzuetan ur asko sartzen da ibai eta errekastoetatik, hain zuzen ere, Markinako

**8.- INFORMES.**

Concedida la palabra al Sr. Otsoa Eribeko informa:

- La posibilidad de realizar una oferta de formación para las personas desempleadas de Zuia, teniendo en cuenta además la convocatoria realizada por la Diputación para subvencionar estas actividades; comenta el tema: se contrataría la realización de un curso de servicios socio-sanitarios para personas dependientes de unas 370 horas; Diputación abonaría un módulo de unas 100 horas y se harían prácticas en las residencias del municipio e incluso en el CRAD. Sería para un grupo de 10/15 personas, por un periodo de 3 o 4 meses con seis horas diarias y el coste ascendería a 18.000 euros para el Ayuntamiento, una vez descontada la subvención de DFA; la empresa que impartiría el curso sería la que realizó el Plan de Empleo municipal y oferta como mejora un curso de manipulación de alimentos.

El Alcalde-Presidente informa:

- Ayer miércoles acudió tal y como se comentó en una anterior reunión, una técnica del Departamento de Educación del G.V. a comprobar in situ el espacio del edificio de los P. Paúles para comprobar si en los planes que tienen ellos cabe la E.G.B e incluso haurreskolak.
- Se ha realizado la petición telefónica de una reunión a URA y a Osakidetza para tratar el tema de los colectores y del CRH respectivamente.

**9.- RUEGOS Y PREGUNTAS. -**

El Concejal Sr. Alonso manifiesta:

- Que a su entender la red de fecales funciona mal en algunos pueblos: hay puntos donde entra mucha agua de los ríos y arroyos, concretamente hay en las arquetas

behealdeko kutxetetan, eta baita Murgian, mojen inguruan ere, edo Ametzaga Zuian, non, dirudienez, estua da hodiaren sekzioa. Bere egunean kolektoreen sarean dauden irregulartasunei buruz bidalitako idazkia gogorarazi beharko zaio URAri, beraiek egin baitzituzten lanak.

- Sarriako Ermitaren aurrealdean dagoen eremuan zoladura konpontzeko beharra errepikatu du.

- Karmeldarren iturri inguruko zoladura egoera txarrean dagoela azaldu du, harrotu egin baita, eta egin zuen esleipendunari konpontzeko eskatu behar zaiola gaineratu du.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 20:15ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

en la zona que baja de Markina, como ocurre en la zona de las monjas en Murgia, o en Ametzaga Zuia donde parece que la sección de tubería es reducida. Habrá que recordar el escrito enviado en su día a URA sobre las irregularidades existentes en la red de colectores cuyas obras ejecutaron.

- Reitera la necesidad de arreglar el pavimento del espacio situado frente a la Ermita de Sarría.

- Pone de manifiesto el mal estado del pavimento del entorno de la fuente de las Carmelitas, que se ha levantado, y la necesidad de requerir a la adjudicataria que lo ejecutó para que lo repare.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la reunión, siendo las 20:15 horas de todo lo que como Secretario certifico.

Idazkaria / La Secretario,